


# Apartheid-en gainetik, lau urtez herrian eta herritarrekin lanean

**Azken lau urte hauetan PNV eta bere lagunek Alderdien lege faxistak sortutako apartheid politikoa buru belarri kudeatu dute Leioako Ezker Abertzalearen kontra.**

2003. urtearen hasieran Leioako emakume eta gizon ezkertzale eta abertzale talde batek bizi genuen salbuespen egoerari eta eskubide urraketari aurre egiteko Leioa Abian Herri Ekimena sortu genuen.

Hiru ziren gure lan ardatzak:

·Autodeterminazioaren aldeko lana, Euskal Herriak bizi duen egoera konpontzeko tresna gisa.

·Baldintza demokratiko ezaren salaketa.

·Ezkerreko ikuspegitik Leioako gizon eta emakumeen bizi baldintzak hobetzeko nahia.

> Durante estos cuatro último años han expulsado a la izquierda abertzale del ayuntamiento de Leioa, mientras que algunas formaciones políticas se han mostrado desde un principio favorables a despojar de sus derechos a un importante sector del pueblo, aquellos que supuestamente eran contrarios a la ley de partidos y a la situación de apartheid creada por su aplicación se han dedicado a imponerla y cumplirla sin hacer absolutamente nada para cambiar la situación.

Indarrak bildu eta gure konpromisoa haratago eramateko apostua egin eta Udal Hauteskundeetan parte hartzeko erabakia hartu genuen, arlo ezbedinetan lanean dihar-duen pertsonekin programa eta kandidatura bat osotu genituen horretarako.

PSOEk eta PPk onartutako Alderdien Legea medio, Espainiar estatuak gure hautagaizerrenda legez kanpo utzi zuen, baina gure papeletak herritarrengana heldu ziren Leioaztar askoren lanari esker. Lortutako 927 bozken arabera Leioa Abianek zinegotzi bat lortu zuen eta debeku arrotzen gainetik herriak eman zigun zilegitasuna.

Lau urte hauetan zehar Leioako Udaletik kanpo egotera behartu gaituzte, alderdi batzuk gure herriko sektore bat inolako eskubiderik gabe uztearen aldeko jarrera argia erakutsi duten bitartean, ustez apartheidaren aurka zeudenek ez dute egoera aldatzeko ezer ere egin, are gehiago, praktikan apartheida bultzatu dute.

Hala eta guztiz ere azken lau urteotan ez diogu lan egiteari utzi. Herritik eta herritarrekin batera ekimen ezberdinak burutu ditugu eta aurrerantzean ere horrela egingo dugu. Euskal Herrian kokatuta dagoen Leioa berri baten aldeko apostua egiten dugu eta Leioako emakumeek eta gizonek zilegitasuna eta babesa ematen diguten bitartean ez ditugu kanpotik etorritako eta bertatik bultzatutako debekuak eta eskubide urraketak onartuko.

# ORAIN EMAKUMEOK

**Martxoaren 23an 19:00etan Kurkudin, emakumeok alternatiba eraikitzera goaz.**

Nahiz eta emakumeon parte hartze soziala gizonezkoena baino altuagoa izan, hau ez da maila politikoan islatzen. Eremu publikoan, emakumeon parte hartze politikoa oso txikia da eta gainera ez du gure interes eta eskubideen defentsa bermatzen.

Politiko profesionalak emakumeotaz hilkutxa baten barruan agertzen garenean soilik oroitzen dira. Une horretan krokodilo malkoak bota eta moral bikoitzez beteta egiten dituzte adierazpen sentituak. Baina aipatu zorigaitza beren sistemaren zeharkako kalte "Jasangarria" besterik ez da. Emakumeon esklabutzan eta esplotazioan oinarritutako egiturak sortzen dituen ondorioetako bat alegia.

Zelan ulertu bestela munduko aberastasunaren zati handi bat ekoiztu eta honen trukean ezer ez jasotzea? Horrek izen bat dauka eta hori esklabutza da. Baina kontua ez da horretan bukatzen emakumea saldu eta erosi daitekeen elementu bat besterik ez da, geure herriko publizitate panel ofizialetan (hau da, udaletxeak kudeatzen dituenetan) salgai dagoena. Hortaz, ez gaitezen engainatu edo hobe esanda ez gaitzatela engainatu.

Egitura ekonomiko, politiko, kultural... osoa emakumeen zapalkuntzan oinarritua dagoen bitartean emakumeak jipoitzen, erailtzen, gaixotzen eta pobretzen jarraituko dute. Beraz eman diezaiogun buelta honi, emakumeok ez dugu gure bizkarra zaintzeko poliziarik nahi, emakumeok aske eta buru jabe izan nahi dugu eta horretarako maila guztietan geure eskubideen bermea exijitu behar dugu.

Ez dezagun bada gure erabakia delegatu, bihur gaitezen subjektu, eztabaidatu, parte hartu, hitz egin, adostu borrokatu eta Euskal



Herri aske eta parekide bat eraiki. Xede horrekin bilduko gara hain zuzen ere Martxoaren 23an 7etan Kurkudin. Bestelako Euskal Herri bat eta bestelako Leioa bat beharrezkoa eta posiblea delako,

Emakumeok alternatiba
eraikitzera goaz !!!

LEIOA eginez!!!
3. zbka. 2007ko Martxoa




# Propuesta para un marco democrático

**La Izquierda Abertzale actualiza su compromiso para superar el conflicto.**

Desde que publicamos la propuesta de Anoeta, la mayoría de los agentes de Euskal Herria están de acuerdo con la metodología que ha presentado la izquierda abertzale para lograr una solución democrática del conflicto, pero el Gobierno de Madrid no ha dado ningún paso resolutivo para avanzar en este sentido; no ha habido hasta ahora ninguna voluntad por parte del PSOE ni del PNV para abordar los temas fundamentales (autodeterminación y territorialidad) sobre los que construir una solución definitiva. Es más, a la par que han mostrado su total falta de interés por llegar a acuerdos básicos, se han multiplicado y recrudecido los ataques contra la Izquierda Abertzale; polítiticas de apartheid en instituciones y ayuntamientos, sentencia Jarrai-Haika-Segi, recrudecimiento de la política penitenciaría con la situación de Iñaki de Juana Chaos como realidad más sangrante, prohibición continua de manifestaciones al amparo de la ley de partidos con la implicación total del PNV, el gobierno vasco y su ertzaintza como fieles mamporreros, cargas, palizas, citaciones, detenciones, torturas,...

Aunque lo conseguido hasta ahora esta muy por debajo de lo que se podría esperar, la vía para el proceso de negociación está abierta, y la izquierda abertzale no dejará de moverse para encauzar este proceso y llevarlo a buen término.

Es hora ya de pasar de una situación no democrática, a otra en la que se pueda trazar el camino hacia una nueva situación.

Un nuevo marco democrático para Euskal Herria superando la situación actual:

¿Cuáles son las bases para componer este marco democrático? Aceptar el derecho de autodeterminación y el que tenemos a decidir nuestro futuro; superar la división y el reconocimiento de la territorialidad.

La propuesta para el marco democrático permitiría unificar los territorios de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa, siempre que la mayoría de los ciudadanos de la CAV y de Nafarroa así lo decidiese.

A través de este marco democrático, se crearía un espacio donde todos los proyectos participarían en condiciones de igualdad, es decir, un espacio que hiciese factible, en el caso de que la mayoría de la ciudadanía así lo decidiese, la consecución de la independencia y el socialismo como una más de las opciones posibles de futuro para este pueblo.

Así pues la propuesta realizada por la Izquierda Abertzale es impecablemente democrática, puesto que está basada en el reconocimiento de derechos fundamentales, el libre compromiso y decisión de l@s ciudadan@s, y propicia la superación del conflicto actual.

De la situación no democrática actual, llegar a una situación democrática.

Nuestra propuesta política se concreta en la definición de una autonomía política, también en lo que respecta a Ipar Euskal Herria, superadora de la actual división territorial y que integra el ejercicio del derecho de autodeterminación.

La izquierda abertzale ha defendido el planteamiento de la autonomía (Alternativa KAS, Nuevo Estatuto de Autonomía,...) en distintas épocas en las que han existido oportunidades para un cambio real en este pueblo, así pues este esquema está totalmente integrado en nuestra historia política.

A día de hoy la Izquierda Abertzale vuelve a comprometerse en lograr un escenario adecuado para abrir las puertas a todos los proyectos políticos superando la actual situación antidemocrática.

Esta propuesta va dirigida a la sociedad vasca y a todos los agentes sociales y políticos.

Tiene como primer objetivo: componer un marco democrático que devuelva la palabra y el poder de decisión a los ciudadanos de Euskal Herria. Eso es, precisamente, lo que reivindica la mayoría de la población de este pueblo.

Su segundo objetivo es superar el bloqueo del proceso para alcanzar un acuerdo político que derive en una solución democrática del conflicto; debatir y lograr un acuerdo entre las diversas sensibilidades y culturas políticas de la Euskal Herria actual.

Es por tanto una oferta para un proceso democrático que se llevará a cabo entre todos y que será para todos, una oferta que puede traer la paz definitiva.

indarrak biltzeko garaia **orain**
ezker abertzalea | orain leioa



## Herritik Herritarrontzat

**Martxoaren 19tik 28ra bitartean herri jardunaldi irekiak izango dira Leioan. Har ezazu parte Leioa berri baten aldeko eztabaidan zure ekarpen eta ideiak emanez.**

Zementuaren eta entxufeen politika darabilen herrian bizi gara une honetan. Herriko baliabideak gutxi batzuen esku daude, gutxi batzuek nahi bezala kudeatzen dituzte. Era horretan, gutxi batzuen zerbitzura egiten dute politika edo hobeto esanda, Udaletxearen gestioa.

Orain lau urte Ezker Abertzalea udaletxeetatik bota zuten, eta Leioa ez da salbuespena izan, ez. Herrian kudeaketa era horri benetako oposizioa egin dion bakarra Ezker Abertzalea izan da. Berau Udaletxetik kaleratuz, EAJ-k bere kasara kudeatu du udala, gainontzeko alderdiek oztoporik jarri gabe. Duela lau urte, Leioa Abian herri plataforma legez kanporatu zuten Madrilen eta, Leioako Udaletxeko gainontzeko alderdiek inolako trabarik ez dute jarri, ondo baino hobeto etorri zaie legez kanporatzea.

Hala ere, herritar plataforman ez gara geldi egon eta jadanik, datozen urteetarako proiektuari forma ematen ari gatzaio. Gure oinarria herritarrei hitza ematea da. Herritarrok, gure parte hartze zuzenaren bidez, zer nahi dugun esan eta erabaki behar dugu. Hartara, alboraturik dauden sektoreengan arreta berezia jarri nahi dugu. Hots, emakumeak eta gazteak.

Zeregin horretan, 20 eragile ingururekin bildu gara. Guztira 45 pertsonak parte hartu du orain arte era batean zein bestean, proposamenen osaketan: Udaleko langileak, sindikatuak, gazte taldeak, feministak, jai batzordeak, bertsolariak, kirolariak, euskalgintzako kideak, ekologistak, musikariak...

Auzo guztietako pertsonak ez ditugu ahaztu nahi. Gure alternatiba herri osorako izango da, auzo guztiak kontuan hartuko ditu. Hau da, Leioa zentruko ikuspegia gaindituko du.

Azken hilabeteotan proposamen horiek denak bildu ditugu eta Leioari begirako alternatiba bat osatu dugu.

Gure proposamena Euskal Herrian kokatzen da, Euskal Herriaren lurraldetasuna aintzat hartzen du eta Leioa bertan kokatu. Herri izaera dauka eta herritarren tamainara moldatuko da. Herri euskaldun eta solidarioa nahi dugu, herrikoia, parekidea eta kalitatezkoa.

Esan bezala, guztiok daukagu zer esanik eta, horregatik, orain eztabaida herri osora zabaldu ko dugu.

Horretarako herritar jardunaldi batzuk prestatu ditugu. Guztiok izango dugu parte hartzeko eta proposamenak egiteko aukera. Jardunaldiak martxoaren bigarren hamabostaldian izango dira.

Gainera, topaketen ostean auzoz auzoko dinamika bat abiatuko dugu, bertatik bertara guztion ekarpenak jasotzeko. Beraz, animatu eta parte hartu!!!

## Jardunaldien egutegia

Martxoak 19, astelehena: Politika soziala.

Martxoak 20, asteartea: Euskara politika.

Martxoak 22, osteguna: Kultura politika.

Martxoak 23, ostirala: Politika feminista.

Martxoak 27, asteartea: hirigintza eta etxebizitza.

Martxoak 28, osteguna: Gazte politika.

Jardunaldien ostean eta bukaera emateko gure asmoa da aurkezpen batzarra eta ekitaldia burutzea.

Martxoak 29, osteguna: Herri batzarra.

Martxoak 31, larunbata: Ekitaldia eta jaia.

**orain leioa**

## Jornadas municipales en Leioa

Entre los próximos días 19 y 26 de Marzo la Izquierda Abertzale organizará unas jornadas municipalistas de carácter abierto para que tod@ vecin@ interesad@ participe con sus ideas y aportaciones en el desarrollo del programa que defenderemos en las próximas elecciones municipales y durante la siguiente legislatura en el ayuntamiento de Leioa. Un sano ejercicio de participación vecinal para mejorar la gestión de un ayuntamiento enrrocado.

Los grupos de debate que conformarán el programa de las jornadas serán los siguientes:

- Política social.
- Juventud.
- Mujer.
- Euskera
- Kultura.
- Urbanismo y vivienda.

Con esta misma intención de facilitar el debate y la aportación de todos los vecinos del pueblo, ponemos a vuestra disposición una página Web mediante la que podréis realizar vuestras aportaciones a diferentes propuestas que podréis consultar accediendo a la siguiente dirección:

www.leioatik.org

Animate y participa en la conformación de una alternativa al modelo de gestión cerrado que nos ofrecen el PNV y sus "socios".

# ¿Ya sabemos cómo es nuestro pueblo?







**Saber cómo es Leioa, un buen punto de partida para encontrar alternativas para este joven "pueblo dormitorio".**

Leioa tiene una población grande y joven. Tiene una renta un poco mas alta que Bizkaia. La mayoria de las edificaciones son de régimen privado. En el 2001 el 12% de los pisos estaba vacio. Muy pocas personas tienen como lengua materna el euskara y aún menos la usan normalmente. A demás, mientras que en educación infantil son l@s menos l@s que eligen el modelo A, en los siguientes ciclos pasa lo contrario. Existen pocas asociaciones y las que hay, están estrechamente ligadas al Ayuntamiento En conjunto, aún se puede definir como ciudad dormitorio.

Y ya que hablamos del Ayuntamiento, cabe destacar que el PNV lo está gestionando a su antojo. En los últimos cuatro años, desde que la Izquierda Abertzale fue expulsada por la fuerza, el resto de partidos no ha puesto traba alguna al PNV en su gestión. Ejemplo claro son las contrataciones hechas estos años, resaltando el caso de Kultur Leioa

Pero veamos por áreas:

### Educación

De las/os estudiantes no universitarias/os el 59,4% lo hace en la enseñanza privada y el 49,9% en modelo A. Mientras que en educación infantil el porcentaje del modelo A es del 26%, va creciendo hasta llegar al 66% en bachiller y 86% en FP.

### Juventud

Desde el Ayuntamiento se realizan pocas actividades para la juventud y no se toma en cuenta la opinión de dicho sector. Resulta imposible utilizar algunos locales del ayuntamiento, dado su alto coste económico. Cabe destacar la necesidad de un Gaztetxe, para que las/os jóvenes puedan realizar sus propias actividades. Por otro lado, el Ayuntamiento deberia frenar la especulación y el enchufismo.




### Política social

Son muchas las insuficiencias en esta área. Po citar alguna: El Ayuntamiento utiliza Behargintza como una ETT, no hay bolsa de trabajo y están privatizando los servicios. No existe responsable de servicios sociales, política de inmigración... En cuanto al área de la mujer, el plan de igualdad no se plasma en la calle y no hay pisos de acogida para las que sufren malos tratos. Hay 1014 paradas/os.

### Cultura

Se promueve la cultura del espectáculo. Con el nuevo Aula de Cultura se ha mejorado en instalaciones, pero hay que revisar la gestion y política de precios. Cabe denunciar lo que el Ayuntamiento está haciendo con el patrimonio cultural: Palacio Mendibile y lavadero de La Chopera. Hace falta mas ayuda y dinero para las fiestas del pueblo y barrios, y una Comision de Fiestas.

### Euskara

Según datos de 2001 el 21% de la población es euskaldun, y el 30% casi euskaldun. La matriculación en los dos euskaltegis del pueblo ha bajado estos últimos años. En cuanto a la Administración se refiere, en 1999 solo para el 47% de los puestos de trabajo se exigía saber euskara y solamente el 2,23% del presupuesto se destino al euskara.

## Hau al da zuen bakea?

